

KULTURA ALTZOLAKO SAN JUAN JAIK · GEHIGARRIA EUSKALTEGIETAN ARIGERA
BERBETAN OIHANE GARATE, AKTORE LANETAN ESTRANEKOZ

BARRREN

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2001eko ekainaren 22a/VIII. urtea/368. zkia

OIHANE GARATE

*“Ni protagonista naizen kortuak Estatuan
sari bat irabaztiak ilusua in dia”*



INFORMATIKA IKASTAROAK

UZTAILEAN ETA IRAILEAN IKASTARO BEREZIAK

40 ikastaro interaktibo baino gehiago

IKASTAROAK

INFORMATIKARA HASIERA

Windows, Microsoft WORD eta Internet

UkflIAIHKAKO

Windows, M. word, M. Excel, M. Acces,
M. PowerPoint, Outlook, Publisher, Front Page,
Internet ...

IDAZKARETZA INFORMATIKOA

Ir Kontabilitate teorikoa, Conta Plus, FacturasPlus,
Nomina teorikoa, NominPlus, Office, Internet

GRAFIKIM

Or Photoshop 5, Corel Draw 6- 8, Freehand 9,
FrontPage 2000...

BULEGO NAGUSIA

Tet./Faxa: 943 74 85 86

E-maita: hezitek@hezik.com

Dreamweaver 3, M. Fireworks 3, M. Flash 4 ...

ELGOIBAR 20870

Ubitarte Plaza, 3 behea

Autocad 14, Solid Edge, 3D studio

BERGARA 20570

Telesforo Aranzadi, 3

LOGRAUZZAILEA

Visual Basic 6, Microsoft visual 3++6,
Borland C++ Builder 5 ...

MULTIMEDIA

Director, Premiere

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

30 ordu [Homologatua]

Modulu bakoitzarekin AGIRI bat.
Ikastaroa bukatzean, DIPLOMA.

Ikastaroak IRAKASLEARI
MULTIMEDIA erara egin daitezke

tut
Gatde



SCU e

hezi.
heziketa eskola





Sutara

Badaude gauzak mendeetan zehar aldatzen ez direnak. Egunotan udan sartuko gara, duela ehun, berrehun edo mila urte bezala. Ez dago globalizaziorik, aurkikuntza genetikorik edota amaren seme-alabarik hori aldatuko duenik. Naturak agintzen du.

Urte sasoi honek hainbat sentsazio eta oroimen eder ekartzen dizkit burura: itsasaldeko kresal usaina, mendiko paraje freskoak, herrietako jaien gosea, gau epeletako kafetxoak... Ze demontre! Uda usainak baikor jartzen gaitu, eta zergatik ez gara zoriontsu izango?

P.D.: Bai, badakit gure bizimoduak klima aldaketa bultzatzen duela, egungo lau urtaroak bakar bat izatera kondentatuak egon daitezkeela, itsasoko urak petrolio usain gero eta jasangaitzagoa daukala, mendiko paraje freskoak gero eta urriagoak direla, herrietako jaietara kotxez abiatzea bizitza jokoan jartzea dela... Baina ez didate irribarrea aurpegitik kenduko, ez horixe. Horiek guztiak eta batzuk (eguzkiak sor ditzakeen kalteak, kotxe ilara luzeak, "overbooking"-a, oporretara joateko sosik eza, oporrik eza, txerrien izurria, bero nazkagarriak...) San Juan sutara botako ditut bihar gauean. Etorriko dira atzera, baina une batez bederen, lasai eta pozik geldituko naiz. Ezerk ez dit urteko gau magiko eta luzeena izorratuko!

Montse Arregi



Biba San Joan!

Giro hotza denean etxe barruan dario garra suari, eta giro epela denean erreka siku unean egoten da sua San Juan bezperan. Altzolan bai, behintzat. Suak, urak eta landarediak bat egiten dute urteko gaurik motzenean.

Altzolako errekan suaren gainetik jauzi egiteko leku askorik ez eta suaren inguruan biltzen da jendea kontu-kontari. Errekako harrietan egiten da sua indarrak biltzeko; bai suak eta bai urak indar garbitzailea dute, eta are gehiago magia blaitutiko gau honetan.

Garai batean errekan bainatzen omen zen jendea San Juan jaietan, gaitzetaz garbitzeko eta babesteko. Nola aldatu den guztia! Nik, behintzat, San Juanetan ez dut Deba ibaian bainurik hartuko, hurrengo San Juanak arte ezingo dut nire gainetik "Iurrin" hori kendu-eta. Aukeran, nahiago dut "eau de toilette". Dena den, biba San Juan!

Amaia Lariz

Cr

O

g

N

Kexak	
nlotz motz	6
gehigarria	13
kiRoIAk	20
aGenda	24



Urruzunoren begi ezkutua

Hitz berri bat asmatu nahi zuen bere ametsetako printzesari oparitzeko. Uste zuen, inork inoiz inon erabili gabeko hitza eskainita neska liluratu egingo zuela. Horregatik gauak eta egunak hizkiak eskuan hartuta zituela ibiltzen zen hara eta hona. Hizkiekin jolasten zuen, bokalak eta kontsonanteak nahasten zituen, korapilatuz, askatuz eta berriz ere beste berriren bat sortuz. Berak hitz iraultzailea asmatu nahi zuen, belarrira ondo egingo zuena, esanahi ederrarekin. Sentitzen zituen milaka sentimenduak hitz bakarrean bildu nahi zituen. Egun gutxira, gaztearen burua puzzle bat zen. Hizkiak besterik ez zituen ikusten. Hitz asmatuak, inolako zentzurik gabekoak bakarrik ateratzen zitzaizkion eztanitik, Eta inork ez zion ezertxo ere ulertzen. Egun batez, bere maitearekin gurutzatu zen kalean eta mutu geratu zen. Hizkiek matxinatu eta akabatu egin zuten mutilaren jarioa. Orduan ulertu zuen hitz berriak asmatzen hasi baino hobe zuela bizitza propioa zeukatenak erabiltzea. Horregatik, hiztegia hartu eta printzesarengana joan zen berak, neskak, aukera zezan gustukoaren hitza.

Jasone Osoro

EUSKAL KOMUNIKAZIO ESPARRUA BABESTU

Ez ditugu une gozoak bizi euskal ikuspegiak dihardugun euskal komunikabideok. ETARI egindako elkarrizketa aitzaki, Euskal Herrian bertotik informazioa lantzen dugun komunikabideon jardun profesionala jarri nahi dute auzitan. Martxelo Otamendi eta Mertxe Aizpurua eta hauek zuzentzen dituzten hedabideen kontra Espainiako Entzutegi Nazionalen jarritako kereilak informazioa eman eta jasotzeko herritarrek duten eskubidea urratzen du.

Bizi dugun gatazkan ETAREN ikuspegia ezagutzeak interes informatibo nabarmena dauka, eta horrela erakutsi dute Euskal Herrian zein erbestean berria zabal jaso duten ehunka komunikabidek. Horrela erakutsi dute haren harian hainbat erreakzio izan dituzten instituzio eta alderdiek. Agerikoa denez, horrek ez du elkarrizketa argitaratu duten komunikabideen jarrera jakin bat azaltzen, irakurleak jakingo du esandakotik bere ondorioak ateratzen. Informazio egiazko eta objetiboa eskaintzea ez da delitua, irakurle eta komunikabideek legez aitortua duten eskubidea baizik.

Gertatutakoek, eta honen inguruan argitaratu diren hainbat iritzik, Egunkaria, eta oro har euskal esparruko komunikazioa, isilarazteko asmoa erakusten dute, euskalgintzan diharduten hainbat erakunde eta komunikabiderekin egin den modu berean. Euskalgintzaren ikuspegitik, berriz, Egunkaria zein euskalgintzan diharduten beste erakundeak amiltze bidean jartzeak euskarari kalte atzerazinak eragin diezazkieke. Horregatik, guztion artean euskal komunikazio esparrua babestu eta indartzeko premia dugu.

Ainara Argoitia,
Egunkariako kazetaria

ASTEKARIA

BaRRen

Nalarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
xr 943 74 41 12
Publizitatea:
xr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren

ARGIARATZAILEA
Elgolbarko Izarra

LAGURTZAILEA Elgolbarko Udala ZUZENDARIA Eli Aizpuru KAZETARIAK Irati Agirreazaldeggi, ASIER Orbea PUSARSTSTS Andoiz Agirregomezkorta MAKETATZAILEA Bea Ansola ADADMINISTRATIOA Amaia Bodrigez GERENTMA Jon Pell Uriguen. KOLARGRATZAILIAK AmaM Lariz, Unai Argarate, Egalehe Aranberd, Lorea Perez de Arbeniz, Jokin Martnez, Alor Zabaleta, LeireUddidi, Olga Unzilla, Mordse Arregi, Juanito Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gurrumaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Unzuno L.T..

AZALEKO ESALIMA Gotzon Garate INPORIATEGIA Gedu Koop. E. TIRADA 4,000 ale LEGE oortosaus SS-1.038192 ISS1111139-1855

ELGOIBAICO IZARIA
EUSKAL

Egoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzaka Kultura Sailak eta Font Aldundiak diruz lagundutako aidiizkartak.



kutxa
run nker

11ANOBAT „Ik,Sgoin ilgITARTA
4,971W1RS n.1111.1.1.11A
GRATIA DANOBAR

• **Haizea Emakume Taideak antolatutako S antanderrerako** eskurtsioan izan zen emakume batek taldea bera eta irteeraren antolatzaileak txalotu nahi ditu. "Oso ondo pasatu genuen eguna eta gauza guztiak oso ondo antolatu zituzten".

◆ Bi ikaslek **Ikastolaren eguna** prestatu zutenak txalotu nahi dituzte "oso ongi egon zen-eta".

• Bi neskek **Ikastolako Eneritz, Dorleta, Ane, Mirian, Maite, Miren, Jon, Jon Ander, Asier** eta **Unairi** txalo bero bat eskaini nahi diete. "Betimu" **telebistako saiotik** pasa diren talde guztien artean **lehenak** geratu direlako. Miramonen oso ongi egin zutela esan digute.

• E-posta bidez honako mezua iritsi zaigu BARREnera: "Elgoibartar bat **sarritua** izan da **Bilbo Hiria pop-rock lehiaketan**. **Iban Urizar** da bera eta Teatro taldearekin batera jaso du saria. Zorionak musikari honi!".



• Emakume batek honako kexa azaltzeko deitu du BARREnera: "**Malape tabernaren aldamenean** etxe berrietam joateko pasabidea ireki dute. **Erreka zuloa** dago ondoan eta ertzetan **ez dute inolako barandarik ipini**. Norbait jausi artean egon beharko al dugu zain? Dagokionari oso era arriskutsuan dagoela esan nahi nioke. Bertatik ume eta pertsona nagusi asko pasatzen denez, berandu izan baino lehen konponbidea eman behar liokete".

• Urasandi auzoko bizilagun batek BARREn honako kexa hau azaltzeko eskatu digu: "**La Union elkartearen goikaldean dauden bi jarlekuak oso egoera txarrean daude**. Norbaitek hori konpondu beharko luke auzoari oso itxura txarra ematen dio-eta".



Elgoibarko Udaleko giza baliabideen teknikariaren kontratazioa ilegala dela dio Donostiako epaitegiko sententzia batek

CCOO sindikatuak eraman du auzitara Udata langilea ilegalki kontratatzeagatik

Elgoibarko Udalak giza baliabideen teknikaria modu ilegalean kontratatu zuela eta auzitara eraman zuen CCOO sindikatuak. Donostiako epaitegiak onartu egin du CCOOek aurkeztutako demanda. Beraz, lan kontratua ezeztatu egingo dute.

1999an egindako azterketa baten arabera, Udaleko langileen gestioa hobetzeko teknikari baten beharra somatuta, Langairen bidez pertsona bat kontratatzeko erabakia hartu zuten. CCOOen esanetan, Elgoibarko Udalak ez zituen Administrazio Publikoko kontratazio legeak bete Alexander Mendiola, giza baliabideen teknikaria, kontratatzerako



Udaleko langileen gestioa hobetzeko kontratatu zuten giza baliabideen teknikaria. Orain, kontratua bertan behera laga beharko da.

orduan. Sententziaren arabera, "ezin daitezke konpara lanpostu honi eman zaion

publizitatea eta Udalak egin izan balu, emango liokeen zabalpena".

Urgentzia

Udalak kontratazioa modu honetan egiteko emandako beste arrazoietakoa **bat lanpostua** betetzeko urgentzia izan zen, baina sententziak dio: "nahiz eta urgentzia izan, gauzak modu arinean baina egoki egiteko aukera zegoen: **Publizitatea** gehiago zabalduz, eta **aukeraketan** hautagaien berdintasuna eta gaitasuna kontuan hartuz".

Beraz, kontratazioa legezkoa ez dela erabaki du Donostiako epaitegiak eta langile honen kontratua bertan behera uzteko agindua eman du.

Lehergailu bat indargabetu zuten larunbatean PSE-EEren Urasandiko egoitza aurrean

EAJ-PNV, EA, PSE-EE eta PPK manifestu bat kaleratu dute ekintza gaitzetsiz

Joa den larunbatean, goizaldeko 4:30ean, PSOE alderdiak Urasandi auzoan duen egoitza inguruan motxila susmagarri bat ikusi zuen bizilagun batek. Ertzaintzari abisua eman eta patruila batzuk bertara gerturatu ziren. Espezialistek lehergailua indargabetu zuten. Beraz, susto hutsean geratu zen guztia. Operazioak iraun zuen bitartean autoei inguru hartatik pasatzea galerazi zieten. Motxila barruan 5 litro erregai eta bi gas bonbona zeuden ertzaintzaren iturrien arabera.



Urasandin, Kalamua kaleko errebueltan dauka egoitza PSE-EE alderdiak

Elkartasuna

EAJ-PNV, EA, PSE-EE eta PP alderdiek gertakari honen aurrean manifestu bat kaleratu dute ekintza gaitzetsiz. "Ekintza hauek ezin dira, inondik inora justifikatu, ekintza horiekin elgoibartarren borondatea ordezkatzen duten aukera politikoak, kasu honetan Alderdi Sozialista, izutu nahi badituzte", dio idatziak. Bestalde, elkartasuna adierazi nahi diete PSE-EEko ordezkariei politikoei, afiliatuei eta alderdiaren aldekoiei.



Bizkaiko kostan izan dira Mintxetako gimnasia taldeko hainbat emakume

Mintxetan goizetan gimnasia egiten aritzen den emakume talde batek Bizkaiko kostara irteera egin zuen joan den larunbatean.

Egun batez ariketa fisikoa ahaztu eta lagun giroan ondo pasatzeko aprobetxatu zuten. Oso ongi pasatu omen zuten, eta esan digutenez, urtero txangoren bat egiteko erabakia hartu dute.

Argazkian, taldekideak agertzen dira Argiñe monitorearekin.

Bikote eta ezkonberriek euskara ikasteko kanpaina jarri du martxan Udaleko Euskara Zerbitzuak

Hizkuntza transmititzeko bide nagusia familia dela kontuan hartuta, "zure eginkizuna, bere etorkizuna" lemapean, Udaleko Euskara Zerbitzuak bikote eta ezkonberriek euskara ikasteko kanpaina jarri du martxan. Etorkizunean guraso izan nahi badute, euskara ikasteko edo sakontzeko unerik egokiena orain dela adierazi nahi zaie programaren bidez. Horretarako bikoteek epaitegian datuak ematerakoan Udalaren triptikoa jasoko dute, euskara ikasteko jaso daitezkeen dirulaguntzen berri emanez.

Uztailaren 6an amaituko da jaietan txosnak jartzeko eskaera epea

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak, San Bartolome jaietan txosnak jarri nahi dituzten taldeei jakinarazi nahi die uztailaren 6an amaituko dela eskaera epea. Eskatzaileek erakundearen izena, arduradunaren izen-abizenak eta NAN zenbakia, txosnaren kokalekua, neurriak eta zein egunetan jarri eta kenduko den adierazi beharko dute. Udaleko Kultura Sailean aurkeztu beharko dira eskaera orriak goizez.



Soarte

Aurten 60 urte bete dituzten 48 elgothartar Errioxan izan dira

Orain dela 10 urte hasi ziren 50 urte bete zituzten elgoibartarrak elkartzen. Ordutik 10 urte ez dira alferrik pasa eta ospatzea merezi zuela pentsatuta, larunbatean Errioxara irteera egin zuten.

Elgoibarren goizean goiz meza entzun eta gero Errioxan pasatu zuten eguna. Guztira, 48 lagun elkartu ziren eta Paganosen hamarretakoa egin ostean, Villamedianan bodegak bisitatu eta bazkaldu egin zuten. Oso egun ederra pasatu zuten eta egunen batean berriz ere elkartuko direla esan digute.

San Migelgo eliza berri ostean inaugurazio ekitaldia egin zuten Sanmigeldarren Egunean

Joan den igandean, ekainaren 17an, Sanmigeldarren Eguna ospatu zuten izen bereko auzoko elgoibartarrek. Meza nagusia izan zen Iehenengo, eta eguna aprobetxatuz, berritutako eliza inauguratu zuten. 1995ean bete ziren 150 urte San Migelgo ermita egin zutenetik, eta data esanguratsu hartarako auzolanean teilatua eta kanpoko parte berri zizuten batez ere. Auzotarrekin lan egitea sanmigeldarrek berezkoa duten ezaugarri bat da, eta oraingoan ere fin aritu dira eliza barrua konpontzen eta margotzen. Baina dena ez zen lana izan eta esku pilota partiduen ondoren, bazkaria izan zuten eta dantzaldirik ere ez zen falta izan eguna borobiltzeko.



Mauxitxa Txaranga Ourenseko Allariz herrian izan da

Pasa den asteburuan Ourenseko Allariz herrian izan ziren Mauxitxa Txaranga kideak. Orain dela lau urte ere izan ziren bertan eta aurten berriz egin dute bisita. Elgoibarren bizi diren galiziar askoren jatorria da Allariz. Festa do Boi ospatzen zutela-eta, Mauxitxakoei deitu zieten kaleak alaitzeko. Jai hauetan idi bat ibiltzen da kaleetan, guretzat ohitura diren sokamuturretako zezenen pare. Lau kalejira jo zizuten guztira, baina kontatu digutenez, larunbat arratsaldekoa izan zen gogorrena, Txiki Egunean Elgoibarren egiten duten antzera, ia bost orduz aritu baitziren jOzen. Bidaia luzea eta jarduna gogorra izan arren, pozik itzuli dira Txarangaokoak.



ll<ac


- maila guztiak
- EGA iraileko azterketarako matrikula euskaltegian bertan egingo da [ikastaroak uztailean eta irailean izango dira]
- Irakaskuntzako 1. eta 2. perfilak

fzena emateko azken eguna ekainaren 28a

Ikasleek, gurasoek eta langabeek matrikula erdia ordainduko dute ludalaren diru laguntzaz


Elgoibargo aek euskaltegia: Plaza txikia, 3. Tl. 943 741 332

nOla ALDATd diren gauzak!



1904. urtekoa da goian ikus dezakezen erretratu. Madala auzoa da. Orain ezagutu ditzakegun lekuak ikus daitezke, beste eraikuntza batzuk, berriz, desagertuta daude. Dударik ez, ingurua erabat aldatuta dago. Erretratuan ipini ditugun zenbakiak honako lekuekin bat datoz:

- | | |
|---|---|
| 1. Trenbidea. | 6. Malape taberna dagoen etxea. |
| 2. Ormaetxeatarren etxea, arbola artean. | 7. "Polleria Rezabal" zegoen etxea, Azkoitiko errepide ondoan. |
| 3. Etxe-zuri baserria. | 8. Ospitalea. |
| 4. Etxegiiiia eta Iriondo tabernak egon ziren etxea. | 9. Mataderoa. |
| 5. Bitorreneko perratokia (gaur egun, Txarriduna jatetxea). | 10. Arropak garbitzen zituzten lekua. |
| | 11. San Frantzisko kaleko etxeak. Aurrean, erreka dotorea dago. |



2001. urtean paisajea erabat aldatu da. Atzealdeko zelaiak edo belardiak etxez beterik daude. Ibaiaren beste alde ere urbanizatuta dago. Aurreko argazkian, berriz, zubirik ere ez zegoen artean.

hartzen baditugu?

Mallorca
N *** 14111 Poitik erdiat
tlztdok 2, 8,
46.225
Piffirtsanks. Tosat aperb

11111111111111111111.111111111111
Calella
(Costa Bravad
Hotela 7 ren, Pentslo oseau.
Ahrilares 25etik 3111.
38.000
11111111111111111111

Playa Bavaro
**** ilefela. 7 gaz Derra barna.
Negaldna Madellea. Wisiik 2
129.500 I
Plifoortuarke. Tasak aparto

Guatenala
**** Notak. 7 gat
theardla Madristt, 28
150.800
Ptalportmaim Tizak sparte

Boi Taul Resort
*** Hotela. 7 gau. Pentslo erdian.
Uztalaren 15erarte.
47.750
Pta./pertsoneko.
(2 pertsonak % 50eko deskontua)

Salou
4 pers. 7 pa.
Ithiriumm lettit 15era.
+ PortA ~ sarepa l
29.000
Palpylseanku.



r **EROSKI BIDAIK**

SAN BARTOLOME, 11 • TEL. 943 744 656



Elgoibarko Ikastolak 30 lagunentzako Parisera bidala irabazi du "Liburu Gaztea" egitasmoaren eskutik

Gipuzkoako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 7000 ikasle "Liburu Gaztea" sariaren epaile izan dira. Gaztetxoaren artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz antolatu dute Galtzagorri elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak literatura sari hau. Irakurtzeko aukeratutako lau liburuetatik gustukoaren alde ean dute botoa DBHko ikasleek. Igor Elortzaren "Margolana" liburuak jaso du saria, baina liburuak ez zizkizkiz, ikastetxeak ere saritu dituzte "Liburu Gaztea" programan parte hartzeagatik. Ikastola izan da sarituetako bat eta horri eskerrak 30 ikasle Parisera joango dira bidaian. Ikastolako ikasleek saria jaso ostean luntxaz gozatzeko aukera izan zuten.



Elgoibarko Institutuan "Ekoscan" ingurugiro plana jarri dute martxan

Kalitatea modako gaia da azkenaldian, eta hainbat enpresa jadanik hasi dira ISO 14001 ingurugiro ziurtagiria eskuratzeko lanean. Prozesua hasteko "Ekosean" ingurugiro ekintza plana jarri da martxan. Plan honen helburuak ingurugiro inpaktuak antzematea eta ebitatzea dira. Elgoibarko Institutua ere ez da atzera geratu eta bere ikasleak plangintza honetarako hezi nahi ditu. Horretarako, Ingurugiro Osasuneko Zikloan ari diren ikasleek lehenengo diagnostikoa egingo dute, eta gero beharrezko neurriak hartuko dira ahal diren akatsak zuzentzeko. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailaren laguntza jaso dute eta dirua aurreztuz, Institutuaren ingurugiro diagnostikoa egingo dute.



Uxue eta Antton Alberdi anai-arrebak eta Danel Mendibil saritu dituzte Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Paper Txapelketan

Bertsolaritza nekazal giroko fenomenoia izanik, inor gutxik pentsatzen zuen eskoletan hizkuntza garatzeko tresna moduan erabiliiko zenik. Hori dela-eta, Ikastolen Elkarteak 21. aldiz antolatu du aurten Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketa. Aurtengoan Gipuzkoako 870 ikaslek hartu dute parte, tartean baita elgoibartarrek ere. Joan den maiatzaren 1 In Elgoibarko Ikastolan egin zen kanporaketa eta bertan 3 elgoibartarrek idatzitako bertsopaperekin saria jaso dute. Elgoibarko Ikastolako Danel Mendibilek eta Antton Alberdik aipamen berezia jaso dute eta Elgoibarko Institutuko Uxue Alberdik bere mailan lehen saria eskuratu du. Zorionak hiru bertsozale hauei.




IV. URTEURRENA

1997ko ekainaren 23an, 27 urte zituela hil zen

AITOR LARREA ARRIOLA

Etxekoak



ZER ERREKO ZENUKE GUSTURA SAN JUAN GAUEKO SUTAN?



ANE ARIVIENDIA
32 urte,
ingeleseko irakaslea

Jakin badakit ezin daitezkeela erre, baina munduan dauden gauza txar guztiak botako nituzke sutara: biolentzia, gerra, gaisotasunak, miseria, langabezia...

PILAR ZABALETA
60 urte, etxeandrea

Gauza asko erre leikez, bateron bat aukeratzekotan estresa eta prisak erreko nitxuzke, osasunantzat oso kaltegarriak dia-eta.



ANOONI GOMEZ
11 urte, ikaslea

Matematikako liburua. Oso aspergarrixa da eta kursua amaitxu danez ez dot gehixao erabili bihar.

JOSE LUIS AJUBITA
44 urte, tornileroa

Molestatzen nauten gauzak erreko nituzke. Traste zaharrak errez gero berriak erosi behar dira. Beraz, gauza sinboliko bat aukeratuko nuke: jendearen arteko laguntasunik eza.



SILVIA URIGOITIA
30 urte, langabetua

Langabezia. Berez ezin da erre, baina langabezia haundixa dao eta sutan erreko nuke desagertu arte.


ANTONIO PINILLA
70 urte, jubilatua

Ohiturei jarraituz egurra, traste zaharrak eta papelak erreko nituzke, inolako baliorik ez dutenak.



ESKERTZA

2001eko ekainaren 5ean, 89 urte zituela hil zen **ILIANITA GARCIA GARATE** (Tomas Andonegiren alarguna) sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Berba laguna

EUSKARA PRAKTI KATU NAH I DUZUENONTZAT prestatutako errefortzu programa



Badakigu asko zaretela kalean euskaraz berba egiteko aukerarik ez duzenok. Zuekin akordatuta prestatu dugu *Berba laguna* errefortzu programa; euskaldun zaharrak lagun hartuta, euskaraz egiteko aukera paregabea!

Zuek aukeratuko dituzue errefortzu-jarduerak:

Astean ordubete:


Tertuliak, paseoak,

Hilean behin:

Egun pasak, irteerak, txikiteoak, jatorduak,..



Bi, hiru eta lau laguneko taldeak prestatuko ditugu eta talde bakoitzean euskaldun zahar bat egongo da zuokin berba egiteko.



eta gainera debolde!

Animatzen zaretenok
deitu UZTAILAREN 13a baino lehen
943 741 62 efonora (Amaia)

arigera
-Alkeers

Helduen
euskalduntze-alfabetatzea
suspertzeko proiektua

teuska tegi arigera

gaia

UDAKO IKASTAROAK

y, Igoibarko euskaltegietan amaitu dute ikasturtea, baina oporretan ez dituzte ateak erabat itxiko eta eskolak ematen jarraituko dute. Udal Euskaltegian, astelehenean, hilaren 25ean hasiko dira udako ikastaroak eta uztailearen 20an amaituko dira. AEK euskaltegian, berriz, uztailearen 2an hasi eta 27ra arte iraungo dute.

Euskalduntze **maila** guztientzat egiten dute eskaintza, baina bi euskaltegietako arduradunek esan digutenez, ikasleak edo EGA atera nahi duen jendea matrikulatzen da gehienbat udako ikastaroetan. Normalean, kurtsoan zehar euskararekin arazoak izan dituzten ikasleak matrikulatu ohi

dira, gainditu gabeko ikasgaiak dituztelako edo errefortzu moduan, besterik gabe. EGA azterketa gainditu nahi dutenak izaten dira ugarrienak eta taldeak ere hauen arabera antolatzen dira.

UDAL EUSKALTEGIA:
Ekainaren 25etik uztailearen 20a arte.
Matrikulazio epea: Ekainaren 29ra arte luzatu da.

AEK EUSKALTEGIA:
Uztailearen 2tik 27ra arte.
Matrikulazio epea: Ekainaren 28ra arte.

TALDEEN ANTOLAKETA

Eskariaren arabera antolatzen dira taldeak. Hau dela-eta, bi eus-

kaltegietan oraindik ez dute zehazterik izan zein talderekin lan egingo duten. Bai ordea, ordutegiak: bai AEKn eta baita Udal Euskaltegian ere, goizez izango dira ikastaroak. AEKn lau ordu eta erdiko es-

kolak emango dituzte astelehenetik ostiralera eta Udal Euskaltegian 2, 3, 4 edo 5 orduko eskolak izango dira. Izena ematekotan bazaude eta langabetua edo ikaslea bazara, jakin ezazu matrikula erdia ordaindu behar duzula, Udalak bi euskaltegiei ematen dien dirulaguntzart esker. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko, deitu telefono hauetara: AEK euskaltegia: 943 74 13 32 eta Udal Euskaltegia: 943 74 27 31.



Udal Euskaltegia



AEK euskaltegia

ikasleekin berbe an



M. Angeles Iriondo
Goi moilo

M¹ Angeles Iriondo elgoibartarra da eta hiru urte daramatza euskaltegian. Euskaraz irakurtzeko edo jendea-ri ulertzeko gai ba-zen ere, hitz egiteko zailtasunak zituen. Horregatik hasi zen euskara ikasten, hitz egiteko errez-tasuna lortzeko.

Julia Da Rocha
Behe moilo

Julia Da Rocha portugaldarra da, Oportotik 50 kilome- trora dagoen Marco de Canaveses herrikoa. Duela 15 urte, 19 zituela, etorri zen Elgoibarrera eta hemen gel- ditu da. Bi lan egin behar izan ditu Jullak. Lehenik er- daraz hitz egiten ikasi behar izan du eta duela hiru urte euskaltegian hasteko erabakia hartu zuen. Euskara a.s- koz zailagoa egiten zalola dlo.

Zer egiten du portugaldar batek Elgoibarren euskara ikasten?

Ni bueltatzekotan etorri nintzen, ahizpa batekin, baina urtebe- te hemen egin ondoren, Portugalera joan nintzenez, gauzak ez zutela berdin jarraitzen ikusi nuen. Hemen oso gustura nen- goenez, bertan gelditzea erabaki nuen. Horretarako, lehenik gazteleraz hitz egiten ikasi behar izan nuen.

Zerk bultzatu zaitu euskara ikastera?

Gaur egun, Santa Klarako konbentuan bizi naiz, mojekin. Oraindik ez daukat moja egiteko asmorik, baina beraien arte- an hartu naute eta lorategiak zaintzeko ardura daukat. Mezetan euskaraz irakurtzen nuen edo salmoak euskaraz abesten ni- tuen baina ez nuen ezer ulertzen. Neure idea bat izan zen. Esa- ten dudana ulertzeko, batik bat.

Ulertzeaz aparte, hitz egitera ausartzen al zara?

Ez naiz oso pertsona irekia eta lotsa ematen dit. Norbaitek zerbait eus- karaz galdetzen didanean erantzut- en saiatzen naiz, baina inork ez ba- cht euskaraz hitz egiten, ez naiz neuk aurrea hartzen duen horietakoa.



I Euskara ikastea oso zaila egiten ari omen zaizu, ezta?

Bai. Kontuan hartu behar da niretzat guztia dela ber- ria. Euskaltegian dabilen jendeak, kalean, etxean edo txikitatik entzundako hitz asko dakizki, baina niretzat oso arraroak dira.

Zer espero duzu lortzea euskararekin?

Nere buruarekin gustura egotea.

Zelni hitz egin araziko zenloke etiskara?

Erdaraz egiten duten euskaklun guztiei.

Inork animatu al zaitu euskara ikastera?

Hasieran neuk erabaki nuen, baina gero, fitmiliak matu nincltten.

Euskaltegitik kanpo, hitz egiten al duzu edo saiatzen al zara euskaraz egiten?

Bai, euskaltegian ikasitakoa praktikan ipini behar da eta lagunekin edo etxekoekin euskaraz hitz egiten dut. Erosketak egiterakoan ere euskaraz egiten saia- tzen naiz.

Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?

Euskaraz hitz egiteko erraztasun gehiago izan arte behintzat bai.

Zalla egin al zalzu pauso hau ematea?

Bai, hasieran oso zaila egin zitzaidan. Lehenengo ur- tean, batik bat. Orain gehiago hitz egiten dut euskaraz eta aditzak lehen adina k< 'statzen bazaizkit ere, ez dut erciarara jotzen.

Jerz erraztu dizu euskara ikastea?

Irakurtze.ak asko lagundu clit: egunkztria intkurtzeak edo astero BARRENi gainbegirada emateak, adibidez. Gero, lagunekin euskaraz ititz egitea eclo lotsak akle batent utzi eta jenclearekin euskaraz berba egitea ere oso garrantzitsua da.

Euskaltegiako ikasleek eta trikitixa ikastarokoek ikasturte amaierako afariak egin zituzten asteburuan



Euskaltegietan kurtsu guztian euskara ikasten aritu direnek ere atsedena hartuko dute. Deskantsurako garaia hasteko Elgoibarko bi euskaltegi-talto ikasleak Toletxen bildu ziren ikasturtean agur esanez afari bat egiteko.

Bestalde, Arigerak antolatutako trikitixa ikastaroan ibili direnek ere afaria egin zuten guztiek batera, eta Elgoibarko tabernetan aukera gehiegirik ez izan arren, primeran erakutsi zuten beraien dohain berria eta jaietan ere trikiti doinuaren arira dantzan ikusiko ditugulakoan gaude.



Arigera proiektuak "Berba laguna" egitasmoa jarriko du martxan

Datorren ikasturtean, Arigera proiektuak "Berba Laguna" egitasmoa jarriko du martxan. Programa honen helburua euskara ikasleak edo ikasten egon direnak euskaldun zaharrek elkartu eta euskaraz berba egiteko aukera izatea da. Jarduera desberdinak izango dira aukeran: astean ordubete pasiaran edo tertulietan euskaraz hitz eginez, edo noiz-behinkako jardueretan parte hartuz: hilean behineko irteeretan, ja-

torduetan...

Bi, hiru edo lau laguneko taldeak prestatuko dira gehienez eta ba-koitzean euskaldun zahar bat egongo da. Izena emateko epea uztailearen 13an amaituko da. AEK euskaltegian (943 74 13 32), Udal Euskaltegian (943 74 27 31), Udaleko Euskara Zerbitzuan (943 74 43 66) eta Elgoibarko Izarran (943 74 16 26).



KOITU

4,11111<11<fil



- 82-83 ikasturtera arte Elgoibarko Izarraren gau eskola arduratu zen helduen euskalduntze alfabetatzeaz.
- Euskal Herrian 78-79 tik AEK martxan zegoen eta HABE ere 1981ean sortu zuen Eusko Jaurlaritzak.
- 1982ko urrian Elgoibarko gau eskolan egindaka bilera baten ondoren, ikasle eta irakasleek AEKren esku geratzeko erabakia hartu zuten.
- 1982an EAJ-PNVren batzokian euskarako eskolak ematen hasi ziren eta 1987ra arte jarraitu zuten. Batez ere umeekin jardun bazuten ere, bazkal ostean helduak ere joaten ziren euskara ikastera.
- 1983ko irailean Elgoibarko Udalak Udal Euskaltegia jarri zuen martxan.
- Gaur egun Elgoibarren bi euskaltegi ditugu: AEK eta Udal Euskaltegia.
- 1999an Arigera proiektua sortu zen helduen euskalduntze alfabetatzea suspertzeko asmoz.

prellain ~ 1 1 ~ ~ ~

"OKERRAK ZUZENTZEN" LEHIAKETA

111111"122 ""4"101".1""11--

1. Ibonek telefonoa erosi du eta nik ere bai.
2. Arantxa, San Roken bizi dela, Bilbon ikusi dut.
3. Non ote dago?
4. Ezingo ditugu gezurrik esan.
5. Asierri eman diot liburua.
6. Bi urteko umeen gela da hau.
7. Goiz guztia pasatu naiz kalean.
8. Beranduago deituko diot.

Zorizi esall hauetan, 4 zuzen daude eta beste 4 okerrak dira. Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, okerrak zein diren asmatu eta zuzen idatzi behar dituzu. Okerrak zuzendu ostean, rnoztv papera rnarra etenetik eia bidali honako helbidera uztailearen 28a baino lehen. (Erantzunak irailean emango ditugu). Arigera proiektua. Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar. Euskara ikasleok euskaltegietan ere entrega dezakezue.

- 1.....
- 2.....
- 3.....
- 4.....

Izen abizenak
Telefonoa [].....

Parte hartzen duzuenon artean SAR1 BAT zozketatuko dugui

EUSKAIDUNAK

Ikasturtea espero bezalakoa izan al da?



GLORIA RUIZ DE GAUNA

Ez nintzen asmo jakin batzuekin hasi, baina 11. stukoa izan da. Euskara ikasteko eta hitz egiteko oinarriak hartu ditut Iehen ikasturte honetan. Taldekideak eta irakasleak oso jatorrak izan dira eta gustatu zait nola erakutsi diguten.



ROCIO GUTIERREZ

Bai, nik hitz solte batzuk baino ez nekizkien eta ikasturtea nahiko zaila izan bada ere, orain euskaraz hitz egiteko oinarri bat hartu dut, erdararekin nahastuta bada ere. Ez dakit noraino iritsiko naizen, baina aurrera jarraituko dut euskara ikasten.



CONCHI SANCHEZ

Bai, euskara gainditzeke nuen ikasgaia zen eta ikasturtea oso positiboa izan da. Hasieran piska bat kostatu zitzaidan arren, gutxinaka hitz egiteko soltura hartzen ari naiz eta datorren urtean ere jarraituko dut.



ISA VERGEL

Bai. Elgoibarren hizi naiz eta beharrezkoa iruditzen zitzaidan euskaltegian hastea. Ikasturtea arnaitu ostean, euskara gehiago dakit. Hina hilabete bakanik egiteko, asko ikasi dut eta hurrengo urtean ere jarraitzeko asmoa dut.

Andoni Segundo elgoibartarrak euskara ikasteko izan duen gogoeta pasioo aipotzekoak dira. Familia erdaldunekoa izanik, etxean ez zuen euskaraz hitz egiten: "Irakaslea naiz eta beharrezkoa ikusi nuen. Hala ere, pausorik handiena duela 17 urte, semea jaio zenean eman nuen. Umea eredu euskaldun batean matrikulatzeko asmoa geneukan eta horrek ahalegin pertsonala eskatzen zigun. Aurretik oinarrizko maila baneukan baina irakasle lanetan hasi eta gero ikasi nuen euskara. Liberazioa eskatzeko aukera izan nuen eta urte eta erdian egon nintzen liberatuta". Horrela, urte eta erdian azterketa gainditzeko adina ikasi zuen eta



Andoni Segundo

segiduon eskolak euskaraz ematen hasteko ausardia eduki zuen. "Hasieran beldurtuta nongoen baina bide bakarra hori zela pentsatu nuen".

Euskara hain azkar ikasteko bere izaerak zerikusi handia izan duela esan digu Andonik, oso irekia baita. "Hizkuntza bat ikasteko sekreturik ez dago. Lotsa alde batera utzi eta hitz egitera kontzientziaztea da kontua".

Gaur, ostirala, Andonik urteak bete dituela aprobetxatuz, BARRENetik zorionak eta -.; - k .r. hirrela bultzatzen

AURREKO "OKERRAK ZUZENTZEN" LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

ESALDI OKERRAK

2. Hotz bat daukati
4. Zer moduz dago Mirenen arreba?
5. Ainara kaka egin zen.
7. Entzun ze galderak egin dizkiote.

ERANTZUN ZUZENAK

2. Hotz handia daukat!
4. Zer moduz dago Mirenen ahizpa?
5. Ainarak kaka egin zuen.
7. Entzun ze galdera egin dizkioten.



IRABAZLEA

FERNANDO FERRERO RUIZ da

Bi pertsonarentzat afaria
Toletxe tabernan

berbetan

Audi auto konpainiak "Attitudes" kanpawaren barruan "Sobre ruedas" laburmetraien fehiaketa antolatu du. Lehen hiru santuen artean dago bi bilbotar gaztearen "Oihane" izeneko film loburra tzen bereko elgoibartar bat du protagonista, Oihane Garate, ham zuzen ere. Gidota ere herritar batena da, Jasone Osoro kazetan eia Jdazlearen. Oihane 14 urte ditu eta hau du lehen espenentza zinearen munduan. Ez dakigu laburmetrala Elgoibarko zine arefora. Intsiko den, bana telebistan ere botako omen clute Sarttua zan dela lakln bezain pronto berarekin berbetan aritu gara espenentzla honen inguruan.



<ortorako pijilla itxuria ipini ziaten papelian hobeto sartzeko"

• Nolatan sortu zitzaizun laburmetraia grabatzeko aukera?

Egiletako bat nere anaixan, Gorkan, laguna da eta kortorako neska baten bila zabilen. Berak arreba bat badaka, baina edadez nagusixaua da. Protagonistia nere edade ingurukua izatia nahi zaban eta nerekin akordauta, kortuan parte hartzeko deitxu zian.

• "Lolita" baten papera bete duzu laburmetraian. "Lolita"-tzat al daukazu zure burua?

Ez, baina kortorako "pijilla" itxuria ipini ziaten. Transformatzeko erreza naizenez, makilau in ninduten: ezpainak gorri-gorri margotuta, bi koletakin... papelian hobeto sartzeko.

■ Aurrez horrelako lanen batean aritu al zara inoiz?

Ez lehenengo aldixa izan da. Mundu hau piska bat ezautzeko aukeria eman dia eta pila bat gustau jata. Baina gerora ez dot pentsatzen honetan jarraitzerik. Antzerkirako ez dot sekula afizio haundirik euki. Gainera, erreza dala irudixu arren, nahiko mundu zaila dala uste dot. Hala ere, Estatuan lehenengo hiru sarituen artian egotia ilusiva in zian.

• laburmetraia hau zine munduan sartzeko lehen pausoa izan al daiteke?

Askotan entzun dia korto txiki bat itxetik hasi, bateron batek ikusi eta aurrera in daben aktorien kasuak. Kortua inda dao nahi dabanak ikusteko, baina ez dot uste

nere kasua izango danik hemendik hasi eta mundu honetan gora itxia. Etxekueri eta laguneri behintzat gustau jakue nik indako lana.

• Zer izan zen zailena zuretzat laburmetraia grabatzerakoa?

Hasieran hiru ordutako prueba bat in naban, kamarara ohitzeko, eta konfiantza piska bat hartzeko, eta oso seria agertzen nintzan. Aparatua dakatenez barre itxerakuan piska bat raro geratzen zan. Baina kortua grabau bihar zabenek natural ipintzeko esan ziaten eta gero ez nintzan hain seria egon. Goiz batian grabau gendun korto dana.

• Zer kontaktzen du laburmetraiak?

Neska batek bera bizi dan tokiko ekologian egoeria kontaktzen da. Hasieran neska, ni, boteila bat marrazten agertzen da, gero egunkari bat eta bukaerara arte ez da bertederu batian dauanik ikusten. Gero papela hartu eta papel kontenedore batera botatzen du. Gai aldetik jendiari gustauko jakola pentsatzen dot, danak gaonelako ekologian alde, eta gauzak garbi eukitzia nahi dogulako.

• Non ikusi al izango da laburmetraia?

Canal+en, TVE 2n eta zine areto batzutan botako dabela esan digute. Igual egunen baten Elgoibarrera ere ailegauko da, baina ez dot uste. Bideua lagunuen artian-eta ikusteko eskatu diate. Lagunek ikustia ez jata inporta, baina jende gehixaok ikustia lotsa piska bat ematen dia.



OIN NE GARATE



Hasi dira Elgoibarko auzoetako jaiak. Udan sartu eta berehala hasten dira Elgoibar inguratzen duten auzoetako jaiak marbcen. Ekainaren 23an Altzolako San Juanekin hasiko dira Elgoibar inguruko auzoetako jaiak, nahiz eta izan zen aurreratu zenik ere, San Migel auzoan Sanmigeldarren Eguna ospatu baitzuten pasa den astean eta Urruzunon ere jaietan izan ziren. San Pedro bailarako jaiak ere gainean ditugu, ekainaren 28an, egunean, hasiko dira. Ondoren, San Lorentzo eta San Roke auzokoen txanda izango da. Dena den, ez gaifezen aurreratu, bere garaian guztien berri izango baituzue BARRENe orriaideetan.

Sua izango da protagonista Altiolako San Juan jaietan

Ekainaren 23an, zapatuan, hasita sua izango da Altzolako San Juan jaietako protagonista nagusia. Auzo txikia izan arren, tradizio handiko jaiak dira eta udako solstizioa inguratu ahala apain eta dotore jartzen dute auzoa altzolarrek. Horrela, salbea kantatuz eta santuari zapia jarritz hasiko dituzte jaiak San Juan bezperan (ekainak 23). Ondoren, urteetako ohiturari jarraituz, San Juan zuhaitza jarriko dute eliza aurreko plazan. Ekitaldi nagusia gauean, Deba ibaian piztuko duten sua izango da. San Juan egunean, berriz, meza nagusia eta prozesioa izango dira ekitaldi nagusiak. Elgoibarko Parrokiako abesbatzak parte hartuko du. Egunean zehar, pilota partiduak, zezentxoak eta poniak eta dantzaldia izango dira.

Altzolako San Juan Jaiak

EKAINAK 23, zapatua

14:30 Kanpai jotzea eta txapligu jaurtiketa

19:30 Salbea Santuari jaietako zapia jarriko zaio

20:00 San Juan zuhaitza jarriko da trikitalariet girotuta

22:30 San Juan sua piztuko da

23:00 Dantzaldia 'Gora' taldearekin eta 'Marian eta Natalioren' dantza saioa

EKAINAK 24, domekia

(San Juan Eguna)

11:00 Meza nagusia eta prozesioa,

Elgoibarko Parrokiako abesbatzarekin

13:00 Trikitalarien kalejira

18:00 Pilota partiduak

20:00 Zezentxoak eta poniak

23:00 Dantzaldia "Gora" taldearekin

EKAINAK 25, astelehena

15:00 Anaiarteko bazkaria trikitalarietkin

16:00 Haurren parkea eta gaztelu erraldoiak

20:00 Zezentxoak eta poniak

22:00 Jaien bukaerako traka

EKAINAK 26, asteartea

19:00 Sardina jatea Altzolako

jubilatuentzat, Canuengo plazan

Bertso afaria, idi-demak eta 111. Zaldi Lasterketa dira ekitaldi aipagarrienak San Pedro bailarako jaietan

San Pedroko Jaiak

EKAINAK 28, osteguna

20:00 Kanpai jotze eta txapligoak

21:00 Auzotar kaskajoen poteoa

EKAINAK 29, barixakua

11:00 Prozesioa eta Meza Nagusia

Ondoren, Saizar, Sahatzu eta Armuetak eskainitako luntxa

14:00 Auzotarren bazkaria

Egun guztian zehar

Izer eta Laja trikitalariak

EKAINAK 30, zapatua

17:00 Umeentzako jolasak

Atxutxiamaikak antolatuta

18:30 Poniak eta zezenak

21:00 Bertso afaria. Mañukorta,

Lizaso, Egaña eta J.M. Irazu. Gai

jartzailea: Fernando Loiola.

Ondoren,

Gaupasa Esteibar musika taldearekin

Gau guztian bolo tiraldiak

Goizaldean, txokolatada

UZTA1LAK 1, domekia

10:30 Meza

12:00 Zaldi lasterketa

Sariak: 25.000 pta. eta garaikurra,

15.000 pta. eta 10.000 pta.

14:00 Auzoko jubilatuentzako bazkaria

18:00 Idi Demak.

Ondoren,

Telebistaren eta karretilaren zozketa

Egun guztian zehar Felix Astorkia eta

Adrian Larrariaga trikitalariak

Auzotarrek egingo duten kaskajoen poteoarekin hasiko dira San Pedro bailarako jaiak ekainaren 28an, egunean.

Aurtengo egitarau zabaletik aipagarrienak idi-demak, III. Zaldi Lasterketa eta Bertso afaria dira.

Urtero moduan, Euskal Herriko bertsolaririk puntakoenak bildu dituzte sanpedrotarrek; Mañukorta, Lizaso, Egaña eta Irazu, alegia. Duela 3 urte hasi zuten zaldi lasterketa arrakastatsua ere izango du jarraipenik eta beste behingoz San Pedroko zelai eta mahaiek hipodromo berezi baten itxura hartuko dute. Azkenik, idi-demak eta bolo tiraldiek baserri giroko hainbat lagun inguratuko dituzte eta baita beste hainbat kurioso ere.

■ Lagunak Esku Pilota Txapelketako finalak gaur, hilak 22, jokatu dira

Lagunak Pilota Eskolak urtero antolatzen duen pilota txapelketa iritsi da azken txanpara. Gaur, barixakua, jokatu dira final handiak Plaza Handiko frontoian. Arratsaldeko 18:00etan hasiko dira partiduak, euria eginez gero 21:00etan hasiko lirатеке Ikastolako frontoian. Finalisten izenak kirol emaitzen zutabea ikus ditzakezue.

■ Eskalada eta patinaje ikastaroak Olaizaga Kiroldegian

Olaizaga Kiroldegiak, udako ikastaroei hasiera emanez, haurrentzako eskalada eta patinaje ikastaroak antolatu ditu. Bi ikastaroak ekainaren 25ean hasiko dira eta uztailaren 20an amaitu. Patinaje ikastaroko klaseak astelehenetan, asteartean eta ostiraletan izango dira 11:30tik 12:30era. Eskalada ikastaroko klaseak ere egun berdinetan izango dira, baina goizeko 10:00etik 11:30era.

■ Minitenis Txapelketa eta teffis jaialdia zapatuan, hilaren 23an, Olaizaga Kiroldegian

Kiroldegiko kantxa 4 minitenis pistatan banatuko dute bihar, zapatuan (hilak 23) Udal Kirol Patronatuak antolatu duen I. Minitenis Txapelketa jokatzeko. Benjamin, alebin eta infantil mallako partehartzaileak arituko dira lehia eliminatoria gisa jokatu den txapelketan. Materiala, raketak eta pilotak, antolatzaileek ekarriko dituzte. Partiduak goizeko 10:00etan hasiko dira, goizez kanporaketak eta arratsaldez finalak jokatu. Sariak eta opariak egongo dira parte hartzen duten guztientzako. Honez gain, beste minitenis pista bat jolaserako jarriko dute, pilotak jaurtitzeko dituen makina eta guzti.

Alazne Escudero urrezko bi domina lortu ditu Euskadiko Atletismo Txapelketan

Infantil mailako Euskadiko Atletismo Txapelketa Bilbon jokatu zen duela bi aste



Mintxeta Atletismo Taldeko Alazne Escudero elgoibartan•ak bi lasterketetan hartu zuen parte, 150 metrotan eta 80x4 errelebotan, hain zuzen ere. 150 metroko finalean 20,33 denborari esker lehen postua eta urrezko domina eskuratu zituen. Ondoren, 80 metroko errelebo lasterketan hartu zuen parte Gipuzkoako selekzioarekin eta bigarren urrezko domina lortu zuen. Luzeera jautsian eta hezi lasterketan parte hartzeko sailkapena lortu zuen Gipuzkoako Txapelketan, baina denboraldian zehar izan duen lesioa berritzeko beldurrarengatik ez arriskatzea erabaki zuen eta ez zuen parte hartu.

Finalista Eguna domekan, hilaren 24an, izango da San Pedron



Morkaiko Mendizale Elkarteak urtero antolatzen duen Finalista Eguna ekainaren 24an, domekan, egingo da San Pedron. Goizeko 10:30ean hasiko dira ospakizunak pintxo janarekin eta txaranga doinuekin. Eguerdiko 12:00etan, domina banaketa hasiko da. 14:00etan bazkaldu aurretik, berriz txaranga gozatzeko aukera izango da. Azkenik, eguerdiko 14:30ean, Atxutxiamaika Begirale Taldeak hainbat jolas antolatuko ditu haurrentzat.

Maialen Mora eta Zurkie Polo Espainiako Lutxa Libreko txapelkun berriak dira

Maialenek brontzezko domina eskuratu zuen Espainiako Judo Txapelketan

Espainiako Lutxa Libre Olinpiko Txapelketako finala Getafen, Madrilen, jokatu zen pasa den asteburuan. Maialen Mora eta Zuriñe Polo elgoibartarrek Euskadiko selekzioa ordezkatu zuten txapelketan, **biak baitira Euskadiko lutxa libreko txapelkunak**. Txikitatik judoan aritutakoak dira eta lutxa librean esperientzi gutxi dute. Hori dela-eta, ez zuten espero txapelik ekartzea. Maialenek aurreko urteko txapelkuna, Andaluziako ordezkaria, gainditu zuen 63 kgz azpiko kategoriako finalean. Zuriñek, berriz, mota honetako txapelketa batean parte hartzen zuen lehen aldian izan arren, heldutasun handia erakutsi zuen eta 44 kgz beherako kategorian urrezko domina irabazi zuen. **Banakako sariez gain**, Euskadiko selekzioak lehen aldiz autonomi arteko txapelkun izatea lortu zuen.



Brontzea Espainiako Judo Txapelketan

Maiatzaren bukaeran, Gijonen (Asturias) izan zen Maialen Mora kadete mailako Espainiako Judo Txapelketan. Euskadiko selekzioarekin joan zen Ibai Kirol Taldeko judoka gaztea. Euskaldunek Madrilgo selekzioaren aurka neurtu zituzten indarrak lehen kanporaketan. 4 konbate galdu eta 3

irabazi ostean, euskaldunak kanporatuta zeuden, baina madrildarrek finalera iristea lortu zuten, Euskadiko selekzioko partaideak brontzezko domina lortzeko borrokan sartu ziren. Gauzak horrela, Nafarroa eta Extremadurako taldeei 7 eta 0 irabazi zieten nagusitasunez. Hirugarren postua Extremaduraren aurka jokatu zuten eta 4 eta 3 irabazi zuten. Maialenen konbatea erabakigarria izan zen, ordura arte 3 konbate irabaziak baitzituzten aurkariek.

Manu Mora selekzionatzaile

Manu Mora, Ibai Kirol Klubeko arduraduna, Euskadiko selekzionarako hautatzaile izateko hautatu dute datozen 4 urteetarako. Infantil mailako (15 urtetik behera) setekzionatzailea izango da eta estatu mailako txapelketetarako judokak prestatzea izango da bere eginbehar nagusia.

PSH taldea kopako txapelkun Eskualdeko Areto Futbol Txapelketan



PSK (Peña Santa Klara) Elgoibarko taldeak irabazi du Eskualdeko Areto Futbol Txapelketa. Trinitate jaietan jokatu zuten Kopako finala Olaizaga kiroldegian, Eibarko Aixa taldearen aurka eta 3 eta 1 izan zen azken emaitza elgoibartarren alde. Garaipen honekin eta Zur Ta Lur taldekoek burutu duten denboraldi apartarekin argi geratu da areto futbolak maila eta etorkizun oparoa dituela gure herrian.

EMAITZAK

Pilota

Sigmaka Txapelketa

Annaxio/Ibarlucea 22 — Iparra/Zarzuelo 9
GerrikalAgi.re 12 — LarrañagaJUJlacia 22
EnekolEgaña 15 — Ansola/Agirreberia 22

AGENDA

Futbol 7, Kiroldegian

19. Bailarako Txapelketa

23, larunhata

9:00 Celta De Vino — Spartak Pitxote

9:00 Mazzantini — Sparta De Praga

10:00 Ke + Da Margon

10:00 Iratxo Rock Kafea — Artetxe

11:00 Paston Pila — Hyundai

11:00 Rezola — Evax Tanga

25, astelehena

20:00 Inkision — F.S.J.

20:00 Lojantzi — Bar Ceba

21:00 Amañako Zeni Con la bota enpina

21:30 Grasshoppers Los Intocables

Esku Pilota

Lagunak Txapelketako Finalak

18:00 Agirrebeña-I. Conde (Benj. A)

18:25 Arribillaga-Arrizabalaga (Benj. B)

18:45 Salegi-Odrozola (Aleb. B)

19:10 P. Larrea-Arrizabalaga (Aleb. A)

19:35 Txurruka-M. Portu (Inf.)

20:00 A. Iriondo-E. Egia (Kad.)

merkatu txikia

	EGUNEZ	GAUEZ	FARMAZIAK
23	Etxeberria* (Errosario kalean)	Fernandez	ESMA, Rekalde, 1 Soraluze Tel: 943 75 16 38
24	Etxeberria* (Errosario kalean)	Fernandez	FERNANDEZ, lerrike enporomzo 4, Garagarzo. Tel: 943 75 61 42
25	Yudego	Yudego	ZABALETA, Ka)elzarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
26	Zabaleta	Zabaleta	
27	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria	leguerdiko 2ok arte)
28	Escala	Escala	OKINDEGIA
29	Bidasolo	Bidasolo	24 igandea Doita Mercedes

bsi Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko **gasolindegia batemako langilea** behar da. **ERREF: 54578/3.**

Debabarreneko enpresa baterako **lo-razaina** behar da. **ERREF: 54001/3.**

Debabarreneko enpresa baterako **margolaria** behar da. **ERREF: 52787/2.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Eibarko lanpostu baterako **pistolarekin margoketak egiteko langilea** behar du. **ERREF: 54993/3.**

Elgoibarko automozio enpresa baterako proiektuak egiteko **3 delinea-tzaile** behar dira. **ERREF: 52786/2.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Debabarreneko lanpostu baterako makina erremintako **muntatzadea** behar du. **ERREF: 52615/4.**

Ermua eta Durango bitarteko enpresa baterako **Karabisteroa** behar da. **ERREF: 52353/4.**

Urola Kostako enpresa baterako **kamareoa** behar da. **ERREF: 54579/1.**

Urola Kostako enpresa baterako **sukaldaria** behar da. **ERREF: 4581/1.**

Azkoitiko enpresa baterako **automaten programatzadea** behar da. **ERREF: 53712/1.**

Arrasateko enpresa baterako **telekomunikazioetako ingeniaria** behar da. **ERREF: 54912/4.**

Durango inguruko enpresa baterako **errekifikatzailea** behar du. **ERREF: 54587/2.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Debabarreneko lanpostu baterako **erretroeskabadorarako langilea** behar du. **ERREF: 53984/4.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Ermurako **prentsarako langilea** behar du. **ERREF: 52923/2.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Matienako lanpostu baterako **prentsarako langilea** behar du. **ERREF: 52804/2.**

Lea-Artiboiko makina erreminta enpresoko baterako **2 komertzial** behar dira. **ERREF: 52952/1.**

Urola Kostako enpresa baterako **langilea** behar da. **ERREF: 54002/4.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Ermuko lanpostu baterako **pistolarekin margoketak egiteko langilea** behar du. **ERREF: 54991/1.**

Durango inguruko enpresa baterako **soldatzailea** behar da. **ERREF: 54185/2.**

Durango inguruko enpresa baterako **4 begiratzailer** behar dira. **ERREF: 54271/0.**

Debabarreneko enpresa baterako **5 begiratzailer** behar dira. **ERREF: 54272/2.**

Eibarko enpresa baterako pubiizidaderako **2 komertzial** behar dira. **ERREF: 55247/1.**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo langai'k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile haueroko butera deitu: Elgoibarko Institutua (Alberto burricastillo) **943 74 80 19** edo M-L (Ekaitz Mendizabal) **943 74 41 32** telefonora.

ESKAERA

Neska euskalduna eskaintzen da uztailan lan egiteko. **a 626 61 31 24.**

Uztailan umeak zaintzeko prest nago. **tr 699 18 37 90.** (Gauetz deitu).

Ernakerneak bere burua eskaintzen du garbiketa lanetarako. Justa. **tr 943 74 35 05.**

Neska euskaldunok bere burua eskaintzen du goizetan tabernon lan egiteko. Arratsaldeko 16:00rak arte. Jangelan eta barran esperientzia dut. **943 74 31 20.**

Neska euskalduna eskaintzen da uztailan umeak zaintzeko. **tr 676 75 39 57.**

ESKAR117_A

Promotore inmobiliarioak emakume saltzailea behar du Elgoibarko bulegorako. Beharrezkoa da inmobiliaria sektorean esperientzia edukitzea. **943 31 75 11.**

Emakume arduraduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanok egiteko. **tr 626 23 75 70.**

Neska edo mutil euskalduna behar da asteburuetan harrera zerbitzuetan lan egiteko. Kurrikulumak 32 postakutxatilara bidali.

Emakumea behar da etxeko lanok egiteko eta 6i ume zaintzeko **Tr 600 66 23 55.**

Zubi Ondo Elkartearen garbiketa lanetarako pertsona behar da. **tr 943 74 24 69**

4 9 urieko ume bat zaintzeko eta etxeko lanok egiteko emakumea behar da. **ir 656 78 98 82.**

Astegunetan lan egiteko kamareroa behar da. **Tr 943 74 42 65.**

Sallemosketall

Garbigailua salgai prezio onean. Kaktera elektrikoa oparituko dut. **ir 943 74 39 75.** (20:30etik aurrera).

Hiru su dituen sukalde industrial eta frijigailua salgai. **s 636 01 57 07.**

Wakom tableta grafikoa saltzen da. Berria, garantiarekin. **sar 943 74 36 06.** (Gauetan deitu).

*ziklomotorra salgai. RI Spike grisa. **tr 627 32 65 11** (Javi).

Logelo rustikoa salgai: ohea, komoda eta "tokadorea"-rekin. **ir 943 74 45 21.** (20:00etik aurrera)

4 R5-1 motorra salgai. 50 zk. Motorra aldatu berria du. Juanjo. **2- 943 74 35 26.** (Arratsalde deitu).

Opel Corsa saltzen da. Km gutxi. **Tr 677 99 16 37.**

Bulegoko matenala salgai. Egoera onean. **ir 677 51 05 97.**

..) vgljIndantiallt

Ingeles filologian lizenziatuak ingelesko klaseak emango ditu uztailan eta abuztuko lehen hamabostaldian. **72: 943 74 10 91.**

Lehen hezkuntzako lehen mailako klase partikularrik hartuko nituzke uztailan. **tr 626 23 75 70.**

xebizitzak

Villamedianan, Logrorion, chalet berri bat salgai. Ingurune ederrarekin eta piszina eta gurti. **IT 943 74 02 68.**

Pisua salgai Deban. 3 logela, komuna, egongela-jangela, ganbara eta igogailua ditu. Altzariekin, bizitzera sartzeko prest. Garajea aukeran. **e 943 19 22 34** (dendako ordutegian). **943 19 11 37** (gauetz).

Etxe bat alokatuko nuke Elgoibarren edo inguruan. (Ana). **e 943 74 02 57/ 943 74 80 65**

Buhardilla salgai Santa Ana kalean. Prezio onean. Berritzeko. **tr 943 49 29 49.**

Elgoibarren edo inguruan pisu baten 6ila nabil: alokairuan, beste norbaitekin konpartitua edo lagela soilik. **n. 678 38 35 61/ 943 74 31 75.**

Apartamentua alokatzen da Torre viejon udako hilabeteetan. Piszinarekin eta hondartzatik gertu. **tr 943 74 23 63.**

Pisua alokatuko nuke Elgoibarren edo inguruan (Eibar, Mendaro, Ermua...). **Ts 652 74 44 34.** (Gauetan)

Pisu berria alokatzen dut Elgoibarren. Jantzita dago. **sr 943 20 30 83.**

Donostian bi exebizitza alokatzen ditugu udarako. Hondartzatik hamar minutura oinez, Egia cluzoan, **z: 617 74 95 09.** Elena edo

Pisua behar dut. Logela eta arropa garbitzeko eskubidearekin. Erdigunean. **is 943 74 42 92.**

Bestelakoak

Iaz, Txiki Egunean, Edu Arrillaga argazkilaria karreteak errekarerori ziztaizkionean, hauek jaso eta bueltatu zizkion neskarekin kontaktuan jarkea nahi du Eduardok, nolabai eskertzeko.

Ekainaren 4an, astelehenean, urrezko medaibia galdu nuen Eroskitik San Roke bitartean. Juan eta Josefa izenak ditu grabatutass **943 74 17 18** (Josefa).

4 12 urteko mutikoarentzat arropa behar da. Oinetakoak batez ere. **sr 943 74 20 44.**

Monopatina galdu dut Madalatic San Frantzisko iturria bitartean. Aurkitu duenak aldaitzaingora eroman dezala.

Belarritako bat galdu dut Elgoibarko kaleetan. Sarituko da. **az 943 74 17 95.**

Enpresa edo bulegoren baten ordencr doreak aldatu badituzu eta z_aharrekin zer egin ez badakizu, guk, BARRENen, hartuko ditugu. **Tr 943 74 41 12.**

Agurrak

Zorionak Maider eta Tamari, ekainaren 14an eta 17an urteak bete zituztelako. Koadri-lakoen partez.

♦ Zorionak **Ander Leon** asteartean 110 urte bete zituelako. 4. mailokoen partez.

Zorionak **Noemi Araujo Go-mezi**. Zure batcio egunean, le-hengusulehengusina Carlos eta Vanesaren partez.



Zorionak Joshua Lemosi, as-tebeteko atzerapenarekin. Es-kerrik asko txutxerengatik. Herri Eskolako 3-Ako lagunak.

OHARRA:
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.



♦ Zorionak **Unail**



+ Zorionak Iosuri, laster bere urtebetetzea delako. **Herri Es-kolako 3-Bko** lagunak.



+ Zorionak **Iker eta Nereari**, ekainaren 25ean eta 26an 11 urte beteko dituztelako. **Familiako-en eta bereziki**, Julien eta Aitorren partez.



♦ Zorionak **Dorleto**, ekainaren 15ean 15 urte bete zenituela-ko. Gustatu al zaizu argazkia? Kopa, Mortzi eta Ituren partez.



♦ Zorionak **Txatol**! Zer uste ze-nuen, ez nintzela gogoratuko, ala? Muxu handi bat..?



Zorionak Eduri, laster bere urtebetetzea delako. **Herri kolako 3-Bko** lagunak.



♦ Zorionak **Nahia eta Nerea!**



Zorionak **Sara**, bihar, hilak 23, 3 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta ahizpa Maria-ren partez.




Zorionak bronkak botatzeko **miss handienari**. Elkano kan-poan nago zor didazun afa-riaren zain.



Zorionak **Maialeni**, laster bere urtebetetzea delako. **Herri Eskolako 3-Bko** lagunak.



***Maitte eta Txabola**. Aerten ez zerate librau. Danak agertu bihar gera, eta zuek zergatik ez? la asteburuan ospotzen dogun. Muxu bana eta zorionak. Iogunak.



Adat-iat9-ea (Zalv-a^D)

1997ko ekainaren 23an hil zen 27 urte zituela.

IV. URTEURRENA

*Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.*

Lagunak

EKAINAK

29

DIPOSITIBAK - Eskandinavia bizikletaz

Asier Zengotatzen



PINTURA ERAKUSKETA

Juana Arrieta



TOLETXE

Pedro Muguruza 8, behea • Tel. 943 74 19 48

22 BARIXAKUA

18:00 **LAGUNAK PILOTA
TXAPELKETAKO FINALAK**

Plaza Handian

Antolatzailea: Lagunak Pilota Eskola

18:30 **HEZIKETA ZIKLOETAKO
KURTZO AMAIERAKO
EKITALDIA**

IMHn

23 ZAPATUA

19:30-22:15 **ZINEA**

"Enemigo a las puertas"

10:00 **MINITENIS TXAPELKETA
ETA TENIS JAIALDIA**

Olaizaga Kiroldgian

Antolatzailea: Udal Kirol Patronatua

24 DOMEKIA

10:30 **FINALISTA EGUNA**

SAN PEDRON

19:30-22:15 **ZINEA**

"Enemigo a las puertas"

25 ASTELEHENA

22:15 **ZINEA**

"Enemigo a las puertas"

27 EGUAZTENA

19:00 **EGUR ARTE**

TAILERREKOEN ERAKUSKETA

Kultur Etxean

Uztailaren 9ra arte

29 BARMAKUA

22:15 **ZINEA**

"Prueba de vida"



"Enemigo a las puertas"

Zuzendaria: Jean-Jaques Annaud.

Antzezleak: Jude Law, Ed Harris, Rachel Weisz.

Orain arteko europear produkziarik garestiena izan da (90 milioi dolar). Bigarren mundu gerran Stalingradon (Sobietar Batasuna) errusiarren eta alemaniarren arteko bataila krudel eta odoltsua kontatzen digu istorioak. Goi mailako bi frankotiratzailerren arteko lehiak hartzen ditu minuturik gehienak. Alde batean, Vassili Zaitsev (Jude Law) errusiarra dugu eta beste aldean nazien ejerzitoko tiratzaile onena, Koenig maiorra (Ed Harris), alegia. Biak dira bakartiak eta entrenamendu berdina jaso dute.

Biak dira hiltzeko makinak, baina kontrako bandoetan.

IKASTETXEAK

Kurtso amaierako ekitaldia IMHn

Gaur, hilak 22, 18:30etik aurrera Heziketa Zikloetako kurtso bukaerako ekitaldia izango da IMHn. Guraso, irakasle eta ikasle guztiak daude gonbidatuta kurtsoari bukaera emango dion ekitaldira. Ikasle bakoitzak diploma bana jasoko du.

IKASTAROAK

Debako Arte Eskola

Udarako arte ikastaroak antolatu ditu Debako Arte Eskolak. Artea gogoko dutenek, besteak beste honako arloak lantzeko aukera izango dute: Kaligrafiatzko grabatua, keramika, brontze fundizio artistikoa, marrazketa eta pintura, marmolezko eskulturak eta egurra lantzeko tailerra. Ikastaroak uztailean izango dira astelehenetik ostiralera goizeko 9:00etatik eguerdiko 15:00etara. Argibide gehiago jasotzeko edo izena emateko deitu telefono honetara: 943 19 18 04.

Euskara ikastaroak

Aurreko urteetan bezala, Elgoibarko AEK euskaltegiak, udan euskara ikasi nahi dutenentzat matrikula zabalik du. Euskalduntzeko maila guztien ikastaroaz gain, irakaskuntzarako beharrezkoak diren perfilak eta EGA azterketa prestatzeko eskolak ere emango dira. Langabetuek eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute, Udalaren laguntza izango baitute. Matrikulatzeko azken eguna ekainaren 28a izango da. Argibide gehiago behar izanez gero, pasatu AEK euskaltegitik, Plaza Txikia 3 edo deitu 943 74 13 32 telefonora.

AISIALDIA

Kayak-etan ibiltzeko aukera

Mutriku Arraun Taldeak 3. urtez jarraian kayak-etan ibiltzeko modua eskaintzen du. Batez ere barru aldeko herrietako bizilagunei arraunean egiteko aukera ematea da beraien helburua. Mutrikuko Arraun Taldekoek itsasoaz gozatzeko bideak ipiniko dituzte, 14 kayak gutzira. Prezioak honakoak dira, banakoak 700 pta. orduko eta bikoak 1.200 pta. orduko. Honetaz guztiaz gain, kayaketan ibiltzeko 10 gonbidapen bidali dizkigute. BARREnera hurbiltzen diren 10 lehenentzat izango dira gonbidapen hauek. Informazio gehiagorako telefonoa: 943 12 01 08.

ZINEA

Zine Kluba oporretan

'Huellas Borradas' pelikula izan da Ongarri Zine Klubak aurtengo denboraldian eskaini duen azkena. Beraz, Zine Klubeko pelikula bat berriz ikusteko, urriaren bukaerara arte itxaron beharko dugu. Azken 8 hilabeteotan, azaroan hasi baitzituzten zine emanaldiak, 31 pelikula eskaini dituzte. Emanaldi asko herriko elkarteekin elkarlanean antolatu dituzte, eta normalean herrietara iristen ez den "bestelako zinea" Elgoibarrera ekartzen saiatu direla aipatu digute Ongarrikoek. "Azken bi urteetan munduan zehar egin diren filmak batzen saiatu gara. Era eta kolore guztietako filmak ekartzen ahalegindu gara, baita zinemagintzak tradizio gutxiago duen herrialdetako zinea ere".

01111;1 zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokia

"Enemigo a las puertas"

Zapatua: 19:30-22:15

Domekia: 19:30-22:15

Astelehena: 22:15

"El Sastre de Panama"

Barixakua: 19:30-22:15

Zapatua: 17:00-19:30-22:15

Domekia: 17:01-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: 19:30-22:15

Eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"Herida Abletla"

Barixakua: 19:30-22:15

Zapatua: 17:00-19:30-22:15

Domekia: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: 19:30-22:15

BERGARA, Jardades de la momia"

Barixakua: 22:30

Zapatua: 17:00-19:30-22:30

Domekia: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30

Mkuslearen eguna

BARREnek ez du gona lizeko emanaldien
aldaketarik egingaririk.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN ^ooi OEKO BEHERAPENA

944 <di>Trii</di> 4441€0

effu3/4,44 16 «ttetelel,

atay

 **ARRAÑAGA**
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11




A

ste honetako erretratu zaharra benetan bitxia da. Manoli Arrizabalagak laga digu. Duela 50 urte ingurukoa da argazkia. San Migel, San Pedro eta Urruzuno bailarako hurrek Arantzazura irteera egin zuten eta han ateratako erretratua da hau, Don Jose Maria apaiza eta Natalia, Maria Cristina eta Maria Angeles andereinoak tartean dutela. Manolik esan digunez, ez omen ziren hiru auzoko hurrek batera irteten eskurtsioetara baina urte hartan horrela egin zuten. Ezinezkoa izan zaigu guztien izenak lortzea baina hala ere, erretratua ikusteko modukoa dela pentsatu dugu. Agian norbaitek bere burua ezagutu du bertan.

11


I. URTEURRENA

2000ko ekainaren 19an, 62 urte zituela hil zen
PAQUITA MURUA GABILONDOren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 23, arratsaldeko 19:00etan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



I. URTEURRENA

2000ko ekainaren 20an, 77 urte zituela hil zen
BERNABE MUGIKA ITLIRZAETAren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 23, arratsaldeko 19:00etan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



KENSINGTONek AURKEZTEN DU:

KAS FUN,

**GUZTIZ
BERRIA**

UZTAILEKO IKASTAROAK

ADINA	MAILA
6-8	Hasi berriak
9-11	Oinarrizkoa
12-13	
14-16	Ertaina

Ordutegia: 9:30etik 13:30era

INGELESA - FRANTSESA*

- 1 Denbora libreko ekintzak
- 1 Hizkuntza egoera errealetan
- 1 Lehiaketak eta txapelketak
- 1 Kirola
- 1 Ekintza artistikoisortzaileak

* Eskareren arabera

004 eta krz lorps itsoa./

KENSINGTON

P. Muguruza etorbidea, 8
Tel. 943 74 02 36/ 74-35 12
E-posta: idiomas g kensington-sl.es

IKASTAROAK

- ✓ Monografikoak
- ✓ Intentsiboak
- ✓ Pertsonalizatuak
- ✓ Enpresa

IKASGAIAK

- ✓ Windows
- ✓ Internet
- ✓ Testu tratarnendua
- ✓ Kalkulo orriak
- ✓ Datu Baseak
- ✓ Autoedizioa
- ✓ Prograrnazio lengoaiak
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Nominak



Informatiko

jacinto Olabe, 6 -EIBAR-

CTI INFORMATIKA

943 120 156 IkasneWterra.es



*informatika
zentru teknikoa*

Udako Ikastaroak UZTAILEAN

GOIZEZ

- 08.00 - 09.00
- 09.00 - 10.00
- 10.00 - 11.00
- 11.00 - 12.00
- 12.00 - 13.00
- 13.00 - 14.00

5101111

BOS KO REMT

GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKAIRUA



AUTOMATIKOKI





ESKUZ



HORREZ GAIN:

- Olioaren edo filtroaren aldaketa
- Pneumatikoen azterketa eta aldaketa
- Balazten eta esekiduraren azterketa
- Mantenimendu orokorra



BASKO RENT

XIXILION, 2

7. eta 8. pabilioiak • 20870 ELGOIBAR

 **902 103 287**